

## **5. ZATIA: BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK**

### **Zer egingo duzue zuen produktua edo zerbitzua bezeroengana helarazteko?**

Komunikazio-kanalak: Webgune baten bitartez gure bezeroekin harremanean jarriko gara. Baita sare sozialen, instagramean (publikazioak), gmailen eta deien bidez ere. Proiektua aurrera eramatekotan, aurkezpen ofizial bat egingo genuke telebista, irratia edo egunkaria bezalako komunikabideetan.

Banaketa-kanalak: Gure banaketa kanpo-kanalekoa izango da, gu sortuko dugu fertilizantea, baina materia organikoa transportatzeko eta produktuak nekazarieei eta merkatuei banatzerako orduan, enpresa transportisten laguntza beharko dugu. Enpresa hauek azpikontratatuak ditugu jarduera hau egin dezaten.

Salmenta-kanalak: Denda eta negozio fisikoetan salduko ditugu gure produktuak. Hasieran, gure kontuz salduko genituzke merkatu lokaletan, baina merkatuan segmentatu ahala, beste hainbat salmenta-kanaletan jardutea pentsatu dugu. Adibidez, km0ko sekzioak dituzten supermerkatuak edota erosleen-kooperatibekin kooperatuz.